



SusAn “European Research Area on Sustainable Animal Production Systems” duela gutxi onetsitako H2020ko ERANET Cofund bat da, eta bere xedea da Europan animalien ekoizpen-sistema iraunkorragoa lortzea. Horretarako, Ikerketa eta berrikuntza (I+b) arloko deialdi eta ekintza bateratuak koordinatu eta erabiliko dira.

ZER DA ERANET COFUND BAT?

Horizonte 2020 Ikerketako eta Berrikuntzako Europako Programa Esparruan, **ERANET-Cofund** tresna berriak batu egin ditu 6. eta 7. Programa Esparruko aurreko ERANET eta ERANET plus. Gainera, arauak sinplifikatu ditu eta askatasun handiagoa eman die partzuergoei.



ERANET-Cofundak gobernuetako eta administrazio publikoetako tresna gisa diseinatu dira, lankidetzaz sareak sortzeko, **Horizonte 2020n balio erantsi handia duten eta garrantzitsuak diren arloetan Ikerketa eta berrikuntza (I+b)** deialdiak eta jarduerak bateratuak koordinatuz eta ezarriz.


ERANET Cofunden azken xedea da eskatu kideetan eta estatu elkartuetan egindako ikerketa-jarduerak eta politikak koordinatzen laguntzea.

Nolanahi ere, ERANET-Cofundetako partaideek I+b-ko programa publikoak finantzatzen edo/eta kudeatzen dituzten entitateak zian behar dute, baita nazioko zein eskualdeko administrazioei dagokien programen jabeak ere.

IRAUNKORTASUNA SEGURTASUNEAN ELIKAGAIEN

2020 Europako Estrategian, “Elikagaien segurtasuna, nekazaritza eta basogintza iraunkorra, itsas ikerketa, itsasoaren eta barneko uren ikerketa, eta bioekonomia” gizarteronkaren eremuan, erabaki zen iraunkortasunaren alde egitea, bai **jatorrian** (hau da, nekazaritza-, abeltzaintza-, akuikultura- eta arrantza-ekoizpenean), bai **elikagaien kontsumoan**, kontsumitzaileen eskaera handia zela eta.

Kontzeptu berri horrek iraunkortasunaren hiru ardatzak bildu behar ditu eta alderdi ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak aintzat hartu behar ditu.



Iturria: [CDTI Infoday País Vasco Horizonte 2020 Reto Social 2.](#)

**ANIMALIA-EKOIZPENAREN
SEKTOREAREN EGOERA EUROPAN**

Animalia-ekoizpen Iraunkorrari buruzko Europako Batzordeko (CWG-SAP) SCAR lantaldeak Europako **animalia-ekoizpenaren sektorearen gaur egungo zein etorkizuneko egoera aztertu du** 2014 eta 2015 urteen bitartean. Honako ondorio hauek atera ditu:

Garrantzia

- ☞ **Europako ekonomiaren alderdi garrantzitsua:** animalia-ekoizpena EB-28ren nekazaritza-ekoizpenaren ia erdia da (% 40) eta zeregin garrantzitsua dauka nekazaritza-ekonomian eta lurraren erabileran.
- ☞ **Zeregin garrantzitsua animalia-jatorriko kalitate handiko produktuen horniduran:** Europako animalia-ekoizpeneko sistemek produktu seguruak, osasungarriak eta balio erantsi handikoak ekoizten dituzte (adibidez, esnea, haragia, arrautzak, artilea, larruak), Gainera, animalia-jatorriko elikagaiek kalitate handiko proteinak dituzte, giza dietan ezinbestekoak.

Erronkak

- ☞ **Globalizazioa areagotzea:** Europako animalia-ekoizpenak aurre egin behar die populazioaren gorakadarekin eta elikagaien eskaera handiagoarekin lotutako erronkei.
- ☞ **Baliabide naturalak eskuratzeko lehia:** baliabide naturalak eskuratzeko (batez ere lurra eta ura) lehiak gero eta eragin handiagoa izango du animalia-ekoizpenean, energia fosilekiko mendekotasuna eta ingurumenari eragiten dizkion kalteak murriztu egin behar baitira.
- ☞ **Aldakortasun ekonomikoa:** PACek dagoeneko babesten ez dituen animalia-jatorriko elikagaiek (esnea eta haragia, besteak beste) prezioen aldakortasun handiari aurre egin behar diote.
- ☞ **Kalteberatasuna gaixotasunen arrear:** animalia-ekoizpenak gaixotasun berriekin lotutako arazoak konpondu behar ditu. Gaixotasun horietako batzuek zerikusia dute klima aldaketaren eraginarekin.

Sistemaren konplexutasuna

- ☞ **Animalia-espezien dibertsifikazioa:** Europako animalia-ekoizpeneko sistemetan animalia-arraza ugari daude inplikatura, geografia-eremuaren eta tokiko arrazaren arabera.

- ☞ **Ekoizpen-sistema estentsiboak, erdi-intentsiboak eta intentsiboak:** Europako animalia-ekoizpena oso konplexua da, ekoizpen-sistema estentsibo, erdi-intentsibo eta intentsibo ugari ditu eta.
- ☞ **Baliabide ugari:** askotariko baliabideak erabili behar dira animalia-jatorriko produktu ugari eta hainbat espezieetako beste zerbitzu batzuk ekoizteko.

ERANET SusAn

Hausnarketa horren ostean, Animalia-ekoizpen Iraunkorrari buruzko Europako Batzordeko (CWG-SAP) SCAR lan-taldeko kideek, Europako hainbat gobernurekin batera (zehazki, nekazaritza eta abeltzaintza sailak), arlo horretan sare bat osatzeko ekimena aurkeztu zuten 2015ean, eta Euskal Autonomia Erkidegoko gobernua gonbidatu zuten; izan ere, aurreko **ERANETetan eskarmentu handiko eskualdea da.**


Hortaz, 2015eko azaroaren 11n, Europako Batzordeak onetsi egin zuen ERANET Cofund SusAn "European Research Area on Sustainable Animal Production Systems", eta 5 milioi euro bideratu zituen 5 urtetan kudeatzeko (2016tik 2020ra). Milioi horiek ERANET Cofundeko kideek jarritako 17 milioiei batu behar zaizkie.

ERANET Cofund SusAnek 21 milioi € izango ditu animalia-ekoizpen iraunkorreko sistemei buruzko proiektuen eta jardura bateratuen partzuergoak finantzatzeko

SUSAN PARTZUERGOA

Estatu kideetako eta bi herrialde elkartutako 37 erakundek osatzen dute sarea. Nekazaritzako eta Elikadurako Alemaniako Bulego Federala (BLE) da koordinatzailea, Nekazaritzako eta Elikadurako Ikerketa eta Teknologia arloko Institutu Nazionalaren (INIA) laguntzarekin

Honako herrialde hauek parte hartzen dute: Alemania, Espainia, Portugal, Grezia, Italia, Frantzia, Austria, Belgika, Irlanda, Erresuma Batua, Herbehereak, Finlandia, Suedia, Danimarka, Norvegia, Estonia, Lituania, Letonia, Eslovakia, Eslovenia, Txekiar Errepublika, Polonia, Turkia eta Europako bi eskualde: Flandria eta Euskal Autonomia Erkidegoa.



Iturria: <http://era-susan.eu/era-net-consortium>

ELIKAK Eusko Jaurlaritzako Elikagaien Kalitatea eta Industria Zuzendaritzaren ordezkari gisa parte hartzen du, bera baita agintaritzaren eskuduna nekazaritza, arrantza eta elikaduraren arloko I+b programen kudeaketan eta finantzaketan.

Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioak **zeregin aktiboa du; izan ere Sarearen Kudeaketa Batzordeko kidea da**

SUSAN-EN XEDEAK


ERANET honek bi xede nagusi hauek ditu animalia-ekoizpen iraunkorrari buruzko ikerketa sustatzeari dagokionez:

1. EB barruko eta kanpoko herrialdeetan eta eskualdeetan baliabideak mugiaraztea, nekazaritza-elikagaien elikakateko sektoreko eragileak motiba daitezzen **ikerketa-proiektuei buruzko partzuergo transnazioaletan** lankidetzan aritzera, Europan animalia-ekoizpenaren sektore iraunkorra garatzeko.
2. **Ikerketa eta Berrikuntzako Agenda Estrategiko Bateratua** sortzea; agenda horrek etorkizuneko ikerketa-lehentasunak ezarri eta definituko ditu, animalia-ekoizpen iraunkorra lortze aldera.

Bi xede horiez gain, SusAn-ek jardura bateratu ugari antolatuko ditu, besteak beste, deialdiak, networking-ekitaldiak, proiektuetako emaitzak transferitzeko jardunaldiak eta abar.

Xede horiek guztiak betez gero, bermatuko dugu animalia-jatorriko nahikoa produktu hornituko direla, eta produktu horiek kalitate handia izango dutela, ekoizpen-sistemak eraginkorrak eta lehiakorrak izango direla eta haien karbono-isuriak murriztzak izango direla.

SusAnek bete egiten ditu iraunkortasunaren hiru zutabeak (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa), gizarteak balioetsi egiten dituen ekoizpen-sistema iraunkorrak lortzeko. Horren bitartez, lehiakortasun ekonomikoa areagotzen da eta ingurumena gehiago babesten da.



Fuente: ERANET SusAn

IKERKETA-ERRONKAK

SusAnek xede hauek eskuratu nahi ditu animalia-ekoizpen iraunkorra lortzeko Ikerketa eta Berrikuntza arloko ekintzen bidez:

- **Zientzia-bikaintasuna**
- **Europako balio erantsia**
- **Ikuspegi integratuak, sektore-arteak eta eragile anitzenak**
- **Diziplina arteko ikerketa**, animalia-ekoizpenaren kudeaketako osagai guztiak konbinatzen dituena:
 - *animalien osasuna*
 - *animalien ongizatea*
 - *animalien hazkuntza eta ekoizpena*
 - *animalien elikadura eta nutrizioa*
 - *animalien egoitzak (Animal Housing)*
 - *animalia-jatorriko produktuen elikadura-kalitatea eta -segurtasuna*

IKERKETA-DEIALDIA

2014ko urtarrilaren 4an, SusAnek **deialdi bat egin zuen diziplina arteko eta eragile anitzeko ikuspegia zuten proiektuen proposamenak aurkezteko. Proiektu horiek animalia-ekoizpen iraunkorreko sistemen iraunkortasuneko hiru ardatzak bete behar zituzten:**

1. **Ekonomia:** Europako animalia-ekoizpenaren produktibitatea, suspertzeko gaitasuna eta lehiakortasuna hobetzea.
2. **Ingurumena:** hondakinak murrizteko baliabideen erabilera hobetzea eta kudeatzea, eta Europako animalia-

ekoizpenaren ingurumen-iraunkortasuna hobetzea.

3. **Gizarte:** Kontsumitzaileen onargarritasuna hobetzeko ustategietan jarduketak hobetzea, eta honako arlo hauekin lotutako gizarte-erronkei ekitea: animalien ongizatea, produktuen elikadura-kalitatea eta -segurtasuna, bioaniztasuna eta zerbitzu ekosistemikoen hornidura.

ERANETeko 37 erakundeek, Europako Batzordearen laguntzarekin, 21 milioi euro esleitu dituzte onetsitako proiektuetarako. Milioi horietatik 100.000 € Eusko Jaurlaritzak jarri ditu, euskal ikerketa- zein teknologia-zentroek, unibertsitateek eta enpresek animalia-ekoizpen iraunkorra hobetzeko proiektuetan izango duten parte hartzea finantzatzeko.

Proposamenen hautaketak bi fase ditu: animal.

- ✓ **1. fasea:** proposamenen hautagarritasuna ebaluatuko da, deialdiko zehar-irizpideekin eta nazioko/eskualdeko arauekin bat etorriz.
- ✓ **2. fasea:** lehenengo fasea gainditzen duten proposamenek proposamen osoak aurkeztu beharko dituzte eta Adituen Nazioarteko Batzorde batek ebaluatuko ditu, H2020ren ebaluazio-irizpideen arabera. Azkenik, puntu gehien dituzten proposamenak hautatuko dira, eta finantzaketa jasoko dute.

Aurreikusten da beste deialdi batzuk eta beste jarduera bateratu batzuk ere egingo direla.

ONDORIOAK

- ERANET Cofund SusAn lankidetzaren sare bat da. European animalia-ekoizpen arloko ikerketa- eta berrikuntza-programak kudeatzeaz eta finantzatzeaz arduratzen diren 37 gobernuk eta erakundeek osatzen dute sare hori.
- Egiten dituen deialdien bidez, nazio eta eskualdeetako enpresei eta teknologia- zein ikerketa-zentroi aukera ematen die, lankidetzan, I+b proiektuak aurkez ditzaten, animalia-ekoizpeneko sistemen iraunkortasunaren 3 ardatzak betetze aldera.

LOTURA INTERESGARRIAK



- [ERANET Cofund SusAn: webgunea, 2016](#)
- [Abeltzaintzen sektorearen egungo egoera eta bilakaera EAEn: ELIKAREN artikulua, 2015](#)
- [Zer dira ERANETak?: Berezi ELIKA, 2014](#)
- [Europako Estrategia 2020: Berezi ELIKA, 2013](#)
- [ERANET deialdien Behatokia: ELIKA](#)